**EBAZPENA, 2025EKO URTARRILAREN 22KOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, EUSKARA-IKASTAROAK 2024/2025 (DEIALDI OSAGARRIA) EGITEKO ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN DUENA**

Justiziako langile funtzionarioen euskarazko hizkuntza-gaikuntza sustatu eta bultzatzeko asmoz, zuzendaritza honek 2024/2025 ikasturterako Deialdi Osagarria egin du.

Ebazpen honen bidez, deialdi osagarriko euskara-ikastaroak egiteko onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartu da (ikus eranskina).

Egindako deialdia betez, kontuan hartuko dira urrian hasi ziren pertsonak, modulu-aldaketaren ondorioz hasiko direnak eta deialdi osagarrian ezarritako baldintzak bete dituzten partaide berriak.

Deialdian aurreikusitakoan oinarrituta, zerrenda osatzeko, baztertze-arrazoiak honako kode hauen bidez zehaztu dira:

**RESOLUCIÓN DE 22 DE ENERO DE 2025, DE LA DIRECTORA DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA, POR LA QUE SE HACE PÚBLICA LA RELACIÓN DEFINITIVA DE PERSONAS ADMITIDAS Y EXCLUIDAS PARA LOS CURSOS DE EUSKERA 2024/2025 (CONVOCATORIA COMPLEMENTARIA)**

A fin de promover e impulsar la capacitación lingüística en euskera del personal funcionario de Justicia, esta dirección ha llevado a cabo la Convocatoria Complementaria para el curso 2024/2025.

Por la presente resolución se aprueba la relación definitiva de admitidos/as y excluidos/as para los cursos de euskera de la convocatoria complementaria (ver anexo).

De conformidad con la convocatoria realizada, se tendrán en cuenta las personas que se incorporaron a los cursos en octubre, las que vayan a incorporarse como consecuencia del cambio de módulo y los nuevos participantes que hayan cumplido los requisitos establecidos.

Al objeto de dar cumplimiento a lo previsto en la convocatoria, y conformar la lista, se han establecido los siguientes códigos de exclusión:

| kodea | Arrazoia |
|---|---|
| 1 | **Izendapenaren iraupena ez da nahikoa.**<br>La duración del nombramiento no es suficiente. |
| 2 | **Gaur egun Justizia Administrazioan lan ez egitea.**<br>No estar trabajando actualmente en la Administración de Justicia. |
| 3 | **Eskaera arduradun funtzionalari ez jakinaraztea Deialdiak esaten duen moduan.**<br>No haber puesto la solicitud en conocimiento del/de la responsable funcional por la vía que indica la Convocatoria. |
| 4 | **Deialdi osagarrian eskaera berriak onartzeko ezarritako baldintzak ez betetzea.**<br>No cumplir los requisitos para la admisión de nuevas solicitudes en la convocatoria complementaria. |
| 5 | **Murrizketa lanaldiaren laurdena baino handiagoa da.**<br>La reducción es superior al cuarto de la jornada. |
| 6 | **Lanpostuari dagokion maila/hizkuntza-eskakizuna lortuta izatea (egiaztatua izan ala ez).**<br>Haber conseguido (acreditado o no) el nivel/perfil lingüístico correspondiente a su cuerpo. |
| 7 | **Gutxieneko euskara maila ez izatea.** *(5h)*<br>No tener el nivel mínimo de euskera exigido. |
| 8 | **2024-25 ikasturtearen lehen lauhilekoan 5 orduz liberatuta egon izana.** *(5h)*<br>Haber disfrutado de la liberación de 5h el primer cuatrimestre del curso 2024-25. |

| | |
|---|---|
| 9 | **2023-2024 ikasturtean euskara ikastera joan ez izana edo/eta aprobetxamendua bete ez izana.**<br>No haber asistido a cursos de euskera en el curso académico 2023-24, y/o no haber tenido un aprovechamiento adecuado. *(5h)* |
| 10 | **2024-2025 ikasturteko lehenengo lauhilekoan euskara-ikastaroetan aritu ez izana eta/edo aprobetxamendu ona eduki ez izana.** *(5h)*<br>No haber asistido a los cursos de euskera durante el primer cuatrimestre del curso 2024-2025 y/o no haber tenido un aprovechamiento satisfactorio. |
| 11 | **Eskaera epez kanpo aurkeztu izana.**<br>Haber presentado la solicitud fuera de plazo. |
| 12 | **Bere organo judizialeko plantillaren %30a jadanik eskoletara joatea.**<br>El 30% de la plantilla de su órgano judicial ya acude a clase. |
| 13 | **Mailaketa-proba ez egitea eta ez justifikatzea.**<br>No realizar la prueba de nivel/prueba de acceso y no justificarlo. |
| 14 | **Euskaltegia lantokitik urrun egotea (20 minutu baino gehiago).**<br>Ser excesiva la distancia entre el euskaltegi y el centro de trabajo (máximo 20 minutos). |
| 15 | **Eskatutako modulua deialdiaren eskaintzarekin bat ez etortzea.**<br>No ofertarse en la convocatoria el módulo solicitado. |
| 16 | **2023-2024 ikasturteari uko egin izana egiaztatutako arrazoirik gabe.**<br>Haber renunciado al curso 2023-2024 sin razón justificada. |
| 17 | **Ebazpena argitaratu aurretik eskatzaileak berak eskatutako ikastaroari uko egin izana.**<br>Haber renunciado voluntariamente al curso solicitado antes de publicarse la resolución. |
| 18 | **Zerbitzu-betebeharrak egotea.**<br>Haber necesidades del servicio. |
| 19 | **Ikaste-prozesua amaitu izana Deialdi Orokorrak jasotakoaren arabera.**<br>Haber finalizado el proceso de aprendizaje según se recoge en la Convocatoria General. |
| 20 | **Lanerako ezintasun iragankorrean egotea.**<br>Encontrarse en incapacidad laboral temporal. |

Interesdunek ebazpen honen kontra **gora jotzeko errekurtsoa** aurkez dezakete Justizia sailburuorde andreari zuzendua. Horretarako **hilabeteko epea** izango dute, **ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, otsailaren 22ra bitartean (biak barne).**

Dagozkion ondorioetarako jakinarazten da.

Las personas interesadas podrán interponer **recurso de alzada** contra la presente resolución ante la Ilma. Sra. Viceconsejera de Justicia **en el plazo de un mes** a contar desde el día siguiente a la publicación, **hasta el 22 de febrero.**

Lo que comunico para su conocimiento y efectos oportunos.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko urtarrilaren 22an

Marilo Movilla Rivas
**JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA**